

Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian, 1982.eko Abenduaren 30ean argitaratu zen Agindu honen idazkeran huts bat egin denez ohartuta, dagokion zuzenketa ematen da ondoren:

- 3214 Orrialdean, Gipuzkoako Bigarren Epaimahaia, Euskara Hizkuntzalaritza Irakasgaiari, "Gárate Bereikua, Arantzazu 75.568.134", dioenean, "Gárate Bereikua, Arantzazu 72.568.134", esan behar du.

441

Hezkuntza-Sailaren 1983.eko Otsailaren 7ko AGINDUA, Bizkaiko Bilboko "Ibaigane" izeneko Ikastegiko baimenduna aldatzeko baimena emanez.

Andre Txit Argia:

Bizkaiko Bilboko z/g-ko Madariagako Errepidean egoitza duen OHO-ko eta Eskolaurreko Ikastegiko baimenduna den "Religiosas del Sagrado Corazón" delakoak, Ikastegi horretako baimen-jabetza aldatu eta "Fundación Ibaigane"-ri eman dakionaren eskan, suztatutako zehaztapidetza aztertu ondoren;

Hau honela: Dagokion Lurralde-Ordezkaritzak zehaztapidetza horri bere bideak behar bezala eginarazi dizkiola; horri legeek eskatzen dituzten agiripaper guztiak erantsi zaizkiola eta Irakaskuntzako Teknika-Ikuskaritzak eta dagokion Lurralde-Ordezkaritzak eskabide horren aldeko erizpenak eman dituztela;

Hau honela: Ikastegi hori, irakaskuntzan ihardutzeko behar den baimenaren jabe dela;

Zerak ikusita: Oraingo honetan erabilgarri diren 1970.eko Abuztuaren 4ko Guztizko Hezkuntza-Legea; Ekainaren 7ko 1.855/1974 Dekretoa; 1975.eko Apirilaren 25eko Ministeritza-Agindua eta osatze-bidez erabilgarri diren gainontzeko agintzak;

Zera kontutan izanik: Ikastegiak hiru urtetatik behera gabeko aldi batetan irakaskuntzan ihardun, baimendunak baimena lortzeko tasun guztiak izan eta egiaztatzen dituzenez gero, alor horretan indarrean dauden araupideek eskatzen dituzten guztiak betetzen direla,

Sail honek, Ikastegi horretako baimenduna aldatu eta aurrerantzean "Fundación Ibaigane" izan dadineko baimena ematea erabaki du.

Aldakuntza hori Saileko Erroldean erasota utziko da, eta horri darizkion eskubide eta eginbehar guztiak baimendun berriak beretzakotzea ekarriko du, horiek egiteratzeak Ikastegiaren agizko irakaskuntza-ihardunari inolako etenik ezin ekarri diezaiokeela. Baimendun berriak, Ikastegiaren erakuntzari eragin diezaioten aldakuntza guztiak Sail honi jakinarazi beharko dizkio.

Jakin dezazun eta dagozkion ondoriotarako diotsut hori, Andre T. A. horri.

Jainkoak gorde zaitzala, Andre T. A. hori.

Gasteiz, 1983.eko Otsailak 7.

Hezkuntza-Sailburua,

PEDRO MIGEL ETXENIKE LANDIRIBAR.

IRAKASKUNTZA-ARTEZKARI ANDRE TXIT ARGIA. GASTEIZ.

Advertido error en el texto de la citada orden publicada en el B.O.P.V. de 30 de Diciembre de 1982, se transcribe a continuación la oportuna rectificación:

- En la página 3214, Tribunal n.º 2 de Guipúzcoa, Asignatura Filología Euskara, donde dice: "Gárate Bereikua, Arantzazu 75.568.134", debe decir: "Gárate Bereikua, Arantzazu 72.568.134".

441

ORDEN del Departamento de Educación de 7 de Febrero de 1983, por la que se autoriza el cambio de titularidad del Centro "Ibaigane" de Bilbao (Vizcaya).

Ilma. Sra.:

Examinado el expediente promovido por las Religiosas del Sagrado Corazón, titular del Centro de EGB y Preescolar, domiciliado en Camino de Madariaga, s/n., de Bilbao (Vizcaya) en solicitud de autorización para cambio de titularidad del Centro a favor de la "Fundación Ibaigane";

Resultando que este expediente ha sido tramitado debidamente por la Delegación Territorial competente; que se han unido al mismo todos los documentos exigidos por las disposiciones legales y que la solicitud ha sido favorablemente informada por la Inspección Técnica de Enseñanza y la Delegación Territorial correspondiente;

Resultando que el Centro tiene la debida autorización para impartir enseñanza;

Vistos, en lo que es de aplicación a este caso, lo preceptuado en la Ley General de Educación, de 4 de Agosto de 1970; Decreto 1.855/1974, de 7 de Junio; Orden Ministerial de 25 de Abril de 1975, y demás disposiciones complementarias aplicables;

Considerando que se cumplen todos los requisitos exigidos por la normativa vigente en esta materia para proceder a la autorización solicitada, por cuanto el Centro ha venido impartiendo enseñanza por un período no inferior a tres años y el concesionario reúne y acredita las cualidades necesarias para obtener la autorización,

Este Departamento ha resuelto autorizar el cambio de titularidad del mencionado Centro, que en lo sucesivo figurará a nombre de la "Fundación Ibaigane".

Esta transferencia se inscribirá en el Registro del Departamento y supondrá la subrogación en el nuevo titular de todos los derechos y obligaciones inherentes a la misma, sin que su realización pueda producir interrupción en la normal actividad docente del Centro. El nuevo titular habrá de comunicar a este Departamento las modificaciones que afecten a la organización del Centro.

Lo que comunico a V. I. para su conocimiento y efectos.

Dios guarde a V. I.

Vitoria-Gasteiz, a 7 de Febrero de 1983.

El Consejero de Educación,

PEDRO MIGUEL ETXENIKE LANDIRIBAR.

ILMA. SRA. DIRECTORA DE ENSEÑANZAS. GASTEIZ.